

## Tik Tak

### Diru-sarrerak

Diru-sarrera nagusienak aplikazioan egingo diran planen eta aplikazioan eskuratu leikezan zerbitzuen bidez lortuko doguz.

Lehenengo eta behin, azaldu beharra dago, bi bezero mota ezbardinduko doguzala: Arrunta eta Premiuma. Zerbitzu bi horreen artean, diru-sarrera handienak Premium zerbitzutik jasoko doguz. Diruaren ordaintetarako modu elektronikoa erabiliko litzateke eta horretarako banku kontu bat sortuko geunke, aplikaziotik jarraian ordaindu daiten.

Gure egoera personalaren arabera, gatxa izaten da gustu bardinak eta plan bera egin gura dauan konpainia aurkitzea; eta azkenean, ingurukoengan moldatzen gara. Beraz, bezeroak prest ikusten doguz dirua ordaintzeko. Hortaz, behin dohain dan aplikazioa deskargatuta, konpainia aurkitu eta planaren hitzarmena egiteagaitik ordaindu beharko da. Prezioari jagokonez, konpainia aurkitu ezkeru, persona bakotxak 0,99€ ordaindu beharko leuke. Kasu honetan, bezeroak, behin hitzarmena eginda, ordaintzeko aste bateko epea izango dau.

Ordaindu beharreko premium zerbitzua eskaini gurako geunke, bezeroak aplikazioa gustoko izanda eta abantailak gura ezkeru ordaintzeko prest egon leitekezalako. Hainbat abantail eskainiko litzatekez, hala nola, publizidade eza eta premium bezeroen artean mugikor zenbakia zuzenean izatea harremanetan azkarrago jarri daitezana.

Bigarrenez, beste enpresek gugana jo leikie euren publizidadea eskaini daigun. Publizidade hau aplikazioan agerian egongo litzateke. Orobat, noizean behin bezero bakotxari iragarki bat agertuko litxakio eta segundu batzuk igarota iragarkia ezabatzeko aukera edukiko leuke.

Diru sarrerak	prezioa	kopurua (urtean)	guztira ( pxq)
Planak	0,99	50000	49500
Premium	4,45 (hilabeteko)	3000	160200
Publizidadea	0.1	60000 (bisita urtero)	6000
			215700€